

Ariketak 107

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Gaztelaniazko *un/una* guztiak ez dira beti *bat* euskaraz.

Euskaltzaindiak ez du erabakirik hartu gai honen gainean, zaila baita esparrua behar bezala zedarritzea. Hori jakinda, adostasun handia duten adibide argiak erabiliko ditugu ariketa honetan.

Badira beheko esaldietan adibide egokiak, zeinetan egoki erabili den *bat*. Baina beste batzuetan, hobe litzateke bestela ematea. Berridatz itzazu bat/batzuk erabili gabe emango zenituzkeen esaldiak.

1. Ibilgailuek baimen **bat** behar dute herri barruan sartzeko.

2. Zerrendatik gai **bat** aukeratu behar duzu lantzeko.

3. Langile **bat** hil da ostiral honetan Mungian.

4. Hitzarmen **bat** sinatu dute. _____

5. Gose **bat** daukat! _____

6. Hori nire lankide **bat** da. _____

7. Aintzane neska langile **bat** da. _____

8. *Ubertitles* da azpigituluak modu erraz **batean** sortzeko lineako plataforma.

9. Formulario **batzuk** ez daude ondo beteta: zazpi hutsik entregatu dira, eta formulario **bat** ez dagokio gure sailari.

10. Zer izan duzue, neska **bat** ala mutil **bat**?

11. Alfer **bat** zara! _____

12. Zure ondoan dagoena lankide on **bat** da.

13. Zenbait aukera dituzu ordainketa egiteko; transferentzia da horietako **bat**.

14. Garai on **bat** da etxea erosteko, interesak oso baxu baitaude.

15. Uste dut lan on **bat** egin dugula.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



2. Aditzaren aspektua eta kalkoak.

Azken urteotan, aspektuaren gaineko joera desegoki batzuk ari dira zabaltzen, eta horiek baztertzen laguntzeko sortu dugu ariketa hau. Irakur ezazu taulako azalpen laburra, eta, ondoren, zuzendu beheko esaldiak.

Aditzaren aspektuak aditz-ekintza bat burutua den ala ez adierazten du. Hiru aspektu mota bereizten dira, aditz nagusiaren forma zein den: burutua (*jan* du), burutugabea (*jaten* du) eta gertakizuna edo gertatzeko dagoena (*jango* du).

Erdararen eraginez, baztertzekoak diren joera desegoki batzuk ari dira zabaltzen. Hona hemen horietako batzuk:

- Etokizuneko kontuez ari garela, aspektu burutugabea erabiltzea gertakizunekoaren ordeez: *Gauean, joaten gara zinemara? (→ Gauean, zinemara *joango* (al) gara?)
- Agintera emateko, aspektu burutugabea edo puntukaria erabiltzea gertakizunekoaren ordeez: *Goaz? (→ *Joango* (al) gara?)
- ‘Orainaldi historikoa’ modu kalkatuan erabiltzea. Aspektu burutua dagokie horrelakoei euskaraz: *1955ean jaiotzen da (→ 1955ean *jaio* zen / *jaioa* da)
- Mesedeak eskatzeko, ahalaria erabiltzea aspektu gertakizuna erabili beharrean: *Ireki diezadakezu? (→ Irekiko didazu?)

Aspektuaren esparrukoak ez badira ere, aipatzekoak dira honako kalko hauek ere:

- Gerta litezkeen gertakari hipotetikoak aipatzeko, iragana erabiltzea hipotetikoaren ordeez. *Gustatuko zitzaidan Kubara joatea (→ Gustatuko *litzaidake* Kubara joatea).
- Aditz deklaratiiboak —*esan, aipatu, adierazi, komentatu, gogoratu...*— modu ez-jokatuan erabiltzea: *Azkenik, esan, jokalariek... (→ Azkenik, esan behar dugu jokalariek...)

ITURRIA: Euskara Batuaren Eskuliburua (EBE) https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ebe&view=bilaketa&Itemid=1161&task=bilaketa&lang=eu&id=34&highlight=Aditzaren+aspektua+eta+kalkoak

1. *Arratsaldean, **egiten ditugu** erosketak?

2. *Zer, **hasten gara** ikasten?

3. ***Uzten dizkidazu** gaurko euskara klaseko apunteak?

4. *Zer, **jaten dugu** orain, ama?

5. ***Eskatzen diozu**, mesedez, boligrafo bat?

6. ***Esaten diozu**, mesedez, berandu iritsiko naizela?

7. ***Goaz?**

8. ***Ekar diezadakezu** ogia?

9. ***Azal diezadakezu** nola egin behar dudan ariketa?

10. *1946an jaiotzen da, eta 2016an hil.

11. *Orain gustura **ikusiko nuen** pelikula bat zineman.

12. ***Gustatuko zitzaidan** hura hemen egotea.

13. *Amaitzeko, **esan**, poz-pozik nagoela lortutako emaitzarekin.

14. *Azkenik, **komentatu**, jasotako laguntza handia izan dela, eta bihotzez eskertzen dugula.

3. Hobetu testuak koadroan aipatutako irizpideak aintzat hartuta:

1. TESTUA:

Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek era egokian bermatuko dute, besteak beste, plangintzako lehen faseetan, alternatiba egokien aukeratzeko, eta jardura desberdinen eragin metagarri zein sinergikoak kontuan hartzen direla ziurtatzeko, ingurumeneari izango diren eraginaren analisia egingo dela.

2. TESTUA:

Irizpide edo azalpen gehiago jaso dituzte, sare sozialak zuzen erabiltzeko, emakume gazteek gizon gazteek baino, %47,2 eta %39,4 (ehuneko horietan, azalpenak askotan eta noizbait jaso dituztela diotenak batu dira), hurrenez hurren.

3. TESTUA:

Gaur egun dopina ez da, besterik gabe, nahiz eta, era batera zein bestera, dopatzea beti izango den kirol etikaren oinarriko printzipioak urratzeko modua, kirolaren arloko engainu larria, gainera, praktika arriskutsuen multzo antolatua, oso arriskutsua osasun publikoarentzat, eta, bereziki, kirolarien bizitzarentzat, ere bada.

Izatez, tartekiak esaldi bat osatzeko ideiarekin txertatzen ditugun elementuak dira, edukia zehaztu edo osatzeko. Sarritan, pentsatzen dugu testua aberastu egiten dugula tartekiak erabilia, baina, tartekiz betetako testuek irakurketa oztopa dezakete.

Erabil itzazu tartekiak modu egokian. Horretarako, hona hemen hiru irizpide nagusi:

1. irizpidea:

Saia zaituzte, gehienez ere, esaldi bakoitzeko tarteki bat idazten. Tartekiak pilatzen bazaizkizu, jar itzazu aparteko esaldietan.

2. irizpidea:

Ahalik eta tarteki laburrenak idatzi. Ekidin, ahal dela, tartekien barruko tartekiak.

3. irizpidea:

Erabili ortografia-zeinu egokiak tartekiaren hasiera eta amaiera markatzeko. Laburrak eta sinpleak badira, koma erabili; luzeak eta konplexuak badira, parentesia zein marra.

Soluzioak107

- I.
1. Ibilgailuek baimena/baimen berezia behar dute herri barruan sartzeko.
 2. ONDO
 3. ONDO
 4. Hitzarmena sinatu dute.
 5. A zelako gosea daukadan!
 6. Hori nire lankidea da.
 7. Aintzane neska langilea da.
 8. *Ubertitle* da azpitoluak modu errazean sortzeko lineako plataforma.
 9. ONDO
 10. Zer izan duzue, neska ala mutila?
 11. Alfer hutsa zara!
 12. Zure ondoan dagoena lankide ona da.
 13. ONDO
 14. Garai ona da etxea erosteko, interesak oso baxu baitaude.
 15. Uste dut lan ona egin dugula.
- 2.
1. Arratsaldean, **egingo (al) ditugu** erosketak?
 2. Zer, **hasiko (al) gara** ikasten?
 3. **Utziko (al) dizkidazu** gaurko euskara klaseko apunteak?
 4. Zer, **jango dugu** orain, ama?
 5. **Eskatuko diozu** boligrafo bat, mesedez?
 6. **Esango diozu**, mesedez, berandu iritsiko naizela?
 7. **Joango gara?**
 8. **Ekarriko didazu** ogia?
 9. **Azalduko didazu** nola egin behar dudun ariketa?
 10. 1946an **jaio zen**, eta 2016an hil.
 11. Orain, gustura **ikusiko nuke** pelikula bat zineman.
 12. **Gustatuko litzaidake** hura hemen egotea.
 13. Amaitzeko, **esan behar dut** poz-pozik nagoela lortutako emaitzarekin.
 14. Azkenik, **komentatu nahi dugu** jasotako laguntza handia izan dela, eta bihotzez eskertzen dugula.
- 3.
1. **testua:**
Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorren 42. artikulua arabera, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioek era egokian bermatuko dute, besteak beste, ingurumenean izango diren eraginen analisia egingo dela. Analisi hori plangintzako lehen faseetan egingo da, eta balioko du, batetik, alternatiba egokien aukeratzeko eta, bestetik, jarduera desberdinen eragin metagarri zein sinergikoak kontuan hartzen direla ziurtatzeko.
2. **testua:**
Sare sozialak zuzen erabiltzeko, emakume gazteek gizon gazteek baino azalpen gehiago jaso dituzte: % 47,2 eta % 39,4, hurrenez hurren. Ehuneko horietan, azalpenak askotan eta noizbait jaso dituztela diotenak batu dira.
3. **testua:**
Gaur egun dopina ez da, besterik gabe, kirolaren arloko engainu larria, nahiz eta dopatzea beti izan den kirol etikaren oinarriko printzipioak urratzeko modua. Horrez gain, praktika arriskutsuen multzo antolatua ere bada (oso arriskutsua osasun publikoarentzat, eta, bereziki, kirolarien bizitzarentzat).

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

